

JESUSEN BIHOTZA IKASTETXEAREN BEREZKO IZAERA



BIHOTZ SANTUAREN ANIAK
Korazonistak





Balioak

Gure nortasunarekin eta azaldutako egitekoarekin bat etorrita eta pertsonaren prestakuntza osoa bilatuz, uste dugu funtsezko balioak direla honako hauek:

1 NORTASUN PERTSONALAREN GARAPENEAN

- ▶ Autoestimua, askatasuna, erantzukizuna eta betebeharraren zentzua.
- ▶ Pentsamendu kritikoa eta autodiziplina.
- ▶ Norberaren ezagutza eta garapen pertsonala.

2 PERTSONAREN IREKIERAREN GARAPENEAN

- ▶ Errespetua, enpatia eta gainerakoengan konfiantza.
- ▶ Konpromiso sozialaren gaitasuna justizia eta bakea sustatzean.
- ▶ Tolerantzia eta harrera, hain zuzen, edozein motatako kultur, gizarte, arraza, politika edo erlijio bereizkeria oro gainditzera bideratuta.
- ▶ Taldeko lana, partekatzeo doakotasuna eta elkartasuna.
- ▶ Ingurunearekiko eta naturarekiko maitasuna eta errespetua.



3 PERTSONAREN ESPIRITUALTASUNAREN ETA GARRANTZIAREN GARAPENEAN

- ▶ Barnekotasuna eta espiritualtasuna.
- ▶ Nazaretoko Jesusen irudiaren eta dohatasunen mezu ebanjelikoa.
- ▶ Fedearen komunitate dimentsioa eta gizarte dimentsioa.
- ▶ Fedea-kultura-bizitza kontzeptuaren sintesia, irakaskuntza erlijioetsuaren eta katekesiaren bidez.
- ▶ Norberaren bokazioa aurkitzea.

HEZKUNTZA PROIEKTUAK zehazten ditu helburu horiek mailaz maila eta progresiboki betetzea, hezkuntza komunitateko kide guztien laguntzarekin.



Nortasuna

Gure ikastetxea kristau hezkuntzaren arloko **elizaren lana** da, eta Bihotz Santuaren Anaien egitekoa garatzen du. Egiteko hori modu karismatikoa eta profetikoa hasi zuen **An-drés Coindre Aitak**: *“Gazteak heztea, eta ezagutzan eta Jainkoaren maitasunean sakontzen hastea”*.

Gure nortasunaren oinarria **Jesusen proiektu eban-jeliko**a da, proposamen alternatibo eta adierazgarri gisa, gizarte bidezkoagoa, gizatiarragoa eta askatzai-leagoa izateko.

Errealitatearen eta pertsonaren gure irakurketaren oinarria da, hain zuzen, humanismo kristaua eta **pertsonaren ikuspegi oso eta garrantzitsua**. Irakurketa horrek hezkuntzan jardutea eramaten gaitu, **konfiantzaren pedagogiatik eta errukiaren espiritualtasunetik abiatuta** eta gure ikasleen dimentsio guztiak kontuan hartuta: pertsonalena eta emozionalena; soziala eta harremanetakoa, eta espiritualena eta garrantzitsuena.

Familiekin (arduradun nagusiak) partekatzen ditugu egunerokoan hezteko lana eta garatzen ditugun nortasuna, helburuak eta balioak. Lankidetzan hori benetakoa izateko, zenbait bitarteko erabiltzen ditugu, hala nola etengabe harremanetan egotea, Guraso Elkartearen parte hartzea eta hainbat jardueratan inplikatzeko.

Nortasun hori eta gure jatorrizko karisma partekatzen ditugu, halaber, ikastetxeko hezkuntza agente

guztiek: **irakasleekin** nahiz laguntzaileekin eta konpromisoa hartutako pertsona guztiek. Partaidetza erantzunkideari eta eskuzabalari esker, gure egitekoa benetan partekatua, profetikoa eta iraunkorra da, eta **hezkuntza komunitate** indartsu gisa bizi dugu gure nortasuna.

Inguruko errealitate sozialean eta kulturean txertatzen gara eta ohiturak, balioak eta tradizioak aurkitzen eta sustatzen ahalegintzen gara.





Ikuspegia

Inguruko errealitatea eta Ebanjelioaren alde egindako gure aukera ikusita, uste dugu **hezkuntza dela bitartekorik garrantzitsuen pertsona eta gizartea eraikitzeko**, eta aldaketa positiboa sortzen duen ekintza delakoan gaude.

Pertsona osoa eta orekatua hezteko premia dugu kontuan, hezitzaile kristau gisa helarazten ditugun balioekin. Gure begirada ahalmen intelektualetara, sozialetara, afektiboetara eta espiritualetara bideratzen dugu.

Gure **konpromiso sozialaren** jakitun gara. Gizarteari gure begirada kritikoa eskaintzen diogu, sufrimenduarekiko eta behartsuekiko sentiberak gara, eta enpatiak, elkartasunak eta justiziak kezkatzen gaitu. Sentiberatasun hori esperantza eta ikasleen konpromiso soziala ekarriko duten hezkuntza jarduera bihurtzen dugu.

Bihotz Santuaren Anaien mezu ebanjelikoak eta karismak zentzua ematen diote gure egitekoari eta haren oinarria dira. Gainera, guregan aldaketak egitea eragiten dute, antolakuntza, pedagogia eta didaktika mailan, ikasle guztien hazkunde pertsonala bilatzeko asmoz, batik bat gehien behar dutenena.

Gure ustez, hezkuntza jarduera egin behar da lankidetzatik, erantzukizunetik eta hurbiltasunetik abiatuta; bihotzetik, ale-gia.

- ▶ **Erakunde mailan**, hezkuntza osoa eta katolikoa eskaintzen ahalegintzen gara, behartsuenengan arreta jartzen dugu eta itxaropen ikuspegia erakusten dugu. Probintziako lanen batasunak eta helburu horietarako kideen egitekoen elkartasunak egiaztatzen dute errealitate hori.
- ▶ **Maila pedagogikoan**, autonomia, ikaskuntza, konpromiso soziala, gure lanen izaera ebanjelikoa eta banakako arreta sustatzen ditugu.
- ▶ **Maila didaktikoan**, prestakuntzaren eta informazioaren teknologia berrietara hurbiltzen gara, ikasleen ikuspuntu emozionala kontuan hartuta, eta giza gaitasun eta ahalmen guztiak garatzen ditugu laguntza pertsonalaren bidez.





Pedagogia pertsonalizatzailea, aktiboa etasortzailea hautatu dugu, ikasle bakoitza

bere hezkuntzaren eta etorkizunaren egile izan ahal izateko, askatasunezko, errespetuzko eta konfiantzazko giroan.

Hurbiltasuna eta entzute abegikorra sustatzen ditugu, eta, hortaz, arreta berezia jartzen diogu tutoretzari eta orientazio lanei.

Ikasle behartsuenen **gabezi erantzutea** dugu xede: familiako arazoak, inguruko arazoak, arazo ekonomikoak, ikasketa edo jarrera arazoak... Gaitasunak sustatzea dugu xede, norberak bere arrakasta lortzeko.

Pedagogia eta metodologia berritua ditugu, eta horiek ahalbidetzen dute benetako premiei erantzutea eta balio kristauak proposatzea. **Garaietako eta lekuetako premietara egokitzen dugu gure hezkuntza jarduera:** gizarteko eta laneko ingurunera irekita gaude; ausartak gara proposamen berrien aurrean.

Gure hezkuntza jarduera **ikasgelatik eta eskola ordutegitik harago** proiektatzen dugu, aisiaren, kirolaren, gizaritearen eta pastoralen arloko jarduera osagarrien bidez. Prestakuntza gizatiarreko eta kristauko mugimenduekiko eta taldeekiko konpromisoa dugu.



Egitekoa

“HERRITAR ONDRATUAK ETA KRISTAU ONAK HEZTEA” DA XEDEA

Andrés Coindre Aitaren egitekoaren oinordekoak gara, eta hezkuntza, herritarren zintzotasuna eta balio ebanjelikoak zabaltzeko zuen nahiri eusten diogu.

Gure ikastetxeak hezkuntza espazioak sortu nahi ditu, gazteen eta **Nazaretoko Jesusen** mezuaren arteko elkartzeak sortzeko. Gure egitekoak proiektzio akademiko, humanizatzailea, soziala eta kristaua du.

Jesusen eskolan ikasten ditugu haren Bihotzaren bertuteak: **errukia, konfiantza eta zintzotasuna.**

Egiteko hori lortzeko, hiru ardatz ezarri ditugu; hain zuzen ere, horiek egituratzen dituzte gure hezkuntza proiektuaren jarduera eta proposamen guztiak, eta erreferente dira gure hezitzaileentzat:

- ▶ **Ardatz sozio-pertsonala:** pertsona barruko eta pertsonaz kanpoko gaitasunak eta gaitasun emozionalak eta etikoak trebatzea.
- ▶ **Ezagutzaren ardatza:** gaitasun intelektualak, bizitzekoak eta sortzaileak trebatzea, ikasten ikasteko.
- ▶ **Ardatz espirituala:** gaitasun existentzialak, erlijiosoak eta sozialak trebatzea.



Hezkuntza komunitatea

Ikastetxea benetako **hezkuntza komunitatea** da. Elkartuta eta ilusioz beteta, Bihotz Santuaren Anaien nortasuna eta karisma partekatzen ditugu eginkizuna betetzeko. Argitasunez eta zintotasunez bilatzen dugu pertsonaren garapena, konpromisoa hartuta hurbiltasunarekin, erantzunkidetasunarekin eta sormenarekin.

ERAKUNDE TITULARRA

Da Bihotz Santuaren Anaien Institutua. Ikastetxea zuzentzen du. Karisma eta nortasuna zehazten ditu, baita horien fideltasuna bermatzen duten irizpideak ere, eta horiei guztiei eusten die. Hezkuntza taldea da erantzunkidea lan horretan.

IKASLEAK

Dira beren prestakuntzaren subjektu aktiboak eta erantzuleak. Ikastetxeak hainbat lotura mota ditu ikasle ohiekien, haien prestakuntzari laguntzeko.

IRAKASLEAK


Dira hezkuntza jardueraren agente zuzenak. Irakasleek zehazten dute errukiaren espiritualtasuna eta konfiantzaren pedagogia estilo hurbilekoarekin, humanizatzailearekin eta beroarekin. Taldean lan egiten dute, nortasun eta karisma partekatuarekin koherentzian. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua eta haren jarraipena egiten parte hartzen dute, hainbat organoren bidez.

FAMILIEK

Babesa eskaintzen dute ikastetxe eginkizuneari, Guraso Elkartearen eta partaidetza organoaren bidez. Ikastetxeak eskaintzen die behar duten laguntza hezitzaile gisa duten erantzukizuna hobeto betetzeko. Harreman hori markatzen dute enpatiak, jarrera eraikitzaileak eta konfiantza adeitsuak.

ZERBITZUETAKO LANGILEEK

Ahalbidetzen dute eta eraginkorragoa egiten dute hezkuntza jardueraren funtzioetatik.





JESUSEN BIHOTZA IKASTETXEAREN BEREZKO IZAERA

LAGUNTZAILEEK

Osatzen dute Erakundearen EGITEKOA. Animazioko eta kudeaketako lanetan sekularrek duten pixkanakako inplikazioak bermatu egiten du Bihotz Santuaren Anaiek eginkizun horietan duten nortasunaren bizitasuna, iraunkortasuna eta aberastasuna. **Egitekoan dagoen elkartasun** hori funtsezko elementua da Bihotz Santuaren Anaien karismaren etorkizunerako.

Erakunde guztietan bilatuko da, **eztabaida parte hartzailearen** bidez, oinarritzko akordioak lortzea. Hain zuzen, horiek beharrezkoak dira hezkuntza proiektuaren eta ikastetxeko metodologiaren funtzionamendua aurrera eramateko eta indarrean dagoen hezkuntza araudia betetzeko.

IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUAK, eta, zehazki, **BARNE ARAUDIAK**, ikastetxe erakundearen funtzionamendua arautzen du, eta hezkuntza komunitatea osatzen duten taldeen eta pertsonen koordinazioa bermatzen du.



HAUEK DIRA GURE OBRAK

Altsasu	948 56 20 35
Bartzelona	93 203 87 54
Erretereria.....	943 51 12 33
Haro.....	941 30 30 30
Madril	91 353 13 80
Mundaiz. Donostia ...	943 32 70 02
Gares	948 34 00 34
Valladolid	983 36 12 81
Vitoria-Gasteiz.....	945 15 17 09
Zaragoza-La Mina ...	976 22 48 64
Zaragoza-Moncayo...	976 75 12 59

WWW.CORAZONISTAS.COM

